

Ebazpena: R 10/2022
Espedientea: 32/2016

Gasteizen, 2022ko martxoaren 25an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

IMM andreak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean BFA) aurka planteatutako gatazka negatiboari buruz, zeinaren helburua baita 2014ko PFEZaren ordainarazpeneskumena zehaztea. Gatazka hori 32/2016 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- 2014ko uztailaren 7an, IMM andrearen egoitza fiskala Palentziatik Bizkaira aldatzeko eskaera erregistratu zuen BFAk, eta I SC sozietatearena ere bai. Sozietate horretako partaide da IMM andrea % 45ean, eta gainerakoa bere ezkontide JMPA jaunari dagokio.



2.- 2014ko abuztuaren 6an, IMM andreak 037 eredia aurkeztu zuen ZAEAREN aurrean, egoitza fiskala Bizkaira eramateko, eta ordainketa zatikatuak egiteko betebeharrari baja emateko 2014ko ekainaren 30etik aurrerako ondoreekin.

Egun berean, I SC sozietateak 036 eredia aurkeztu zuen, eta PFEZ eta BEZAREN betebeharrari baja emateko 2014ko ekainaren 30eko ondoreekin.

3.- IMM andreak 2014ko lehen bi hiru hilero zegozkien PFEZAREN ordainketa zatikatuak (sozietate zibilaren errentak eratxikitzeagatik) ZAEARI aurkeztu zizkion, eta azken bi hiru hileroak BFARI.

4.- IMM andreak 2014ko PFEZAREN autolikidazioa aurkeztu zuen ZAEAREN aurrean 2015eko ekainaren 23an, 4.502,55 euroko itzultzeko emaitzarekin.

5.- 2015eko irailaren 28an, ZAEAK OHIKO BIZILEKUA LURRALDE ERKIDEAN EGIAZTA ZEZAN eskatu zion, bere datu-basean egoitza fiskala Bizkaian zegoelako.

6.- 2015eko urriaren 8an, zergapekoak aurreko errekerimenduari erreakzionatu zion 2014ko PFEZ aitortpena BFAREN aurrean aurkeztuz, 5.381,69 euroko itzultzeko emaitzarekin.

7.- 2016ko otsailaren 3an, ZAEAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDEZKARITZA BEREZIAREN KUDEAKETARAKO ESQUALDEKO BULEGOAK BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOA JAKINARAZI ZION ZERGAPEKOARI, ITZULKETA UKATUZ BERE BURUA ESKUMENGABETZAT JOTZEN ZUELAKO ZERGAPEKOAK EGOTZA FISKALA BIZKAIAN IZATEAGATIK.



8.- 2016ko otsailaren 16an, BFAk IMM andreari jakinarazi zion 2014ko PFEZaren ordainketa zatikatuak ZAEARI transferitu zizkiola, ekitaldi horretan bere ohiko bizilekua lurralde horretan izan zuela ulertzen zuelako.

Idazki horretan, BFAk jakinarazi zuen egoera berean zegoela haren ezkontidea, JMPA jauna, eta haren ordainketa zatikatuei zegokien zenbatekoa ere bidalita zegoela.

9.- 2016ko maiatzaren 9an, zergapekoak berraztertze-errekurtsoa jarri zuen ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren behin-behineko likidazioaren aurka, eta ez zen onartua izan epez kanpo zegoelako.

Errekurtso horretan, zergapekoak ulertzen zuen egoitzari buruzko desadostasuna konponduta zegoela BFAk bidalitako ordainketa zatikatuekin, eta eskatu zion ZAEARI 2014ko PFEZaren autolikidazioa aurkeztetik eratorritako itzulketa ordain zezala.

10.- 2016ko irailaren 12an, zergapekoak gatazka negatiboa planteatu zuen Arbitraje Batzordeak 2014ko PFEZarekiko ordainarazpen-eskumenari buruz erabaki zezan.

11.- ZAEARI eta DFBri hasierako alegazioen izapidea eman zitzaien, biek epean bete zutena, eta azken alegazioen izapidea eman zitzaien administrazioei eta zergapekoari.



II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, artikulua horrek eginkizun hauek esleitzen dizkio:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien

eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) (...)

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

2.- Gatazka negatiboa sortzen da 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (aurrerantzean EIABE) 13.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau baitio:

“Beste kasu batzuetan, ezein administraziook bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergapekoak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin”.



3.- ZAEAREN jarrera.

ZAEAREN alegazio-idazkiaren ardatza da 2014an zergapekoaren egoitza fiskala Bizkaian zegoela egiaztatzea, eta hori oinarritzen du IMM andreak berak aurkeztutako 037 erduan eta bera partaide den sozietate zibilak aurkeztutako 036 erduan (lurralde erkidean 181 egun eta foru-lurraldean 184 egun egon ziren); biek egoitza fiskala eramandako Bizkaiko etxebizitzari zegokionez ezkontidea titular izatea, etxebizitza horren kontsumoek eta zergadunaren errenta-egozpenek frogatzen dute haren errenta-iturri nagusia sozietate zibilean duen partaidetza dela.

4.- BFAREN jarrera.

BFAK ulertzen duenez, zergapekoaren egoitza fiskala 2014ko uztailaren 7an aldatu zen foru-lurraldera, eta, beraz, zergaldiko egun gehiago egon zen lurralde erkidean; horregatik, ordainarazpen-eskumena ZAEARI dagokio.

Irizpide hori koherentea da ezkontidearen egoerarekin, PFEZAREN 35/2006 Legearen 9.1 artikuluko eta PFEZAREN 13/2013 Foru Arauaren 3.3 artikuluko presuntzioa sortzen baitu zergapekoarengan. Azken horri dagokionez, ordainketa zatikatuen azken bi hiruhilekoak ZAEARI transferitu zaizkio, ZAEAREN aldetik kontrako erantzunik jaso gabe.

BFAREN iritziz, ZAEA ez bazegoen ados zergapekoaren egoitzarekin, egoitza aldatzeko prozedura hasi izan beharko zukeen.



5.- IMM andrearen 2014ko PFEZaren ordainarazpen-eskumenari buruz.

ZAEAREN eta BFAREN datu-baseetan, zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa agertzen zen 2014ko abuztuaren 6ko datarekin (2014ko ekainaren 30erako atzeraeragina ordainketa zatikatuak egiteko betebeharraren bajari dagokionez bakarrik agertzen da) eta 2014ko uztailaren 7ko datarekin.

Bi datetako edozeinek zehaztuko luke zergapekoa zergaldiko egun gehiago egongo zela lurralde erkidean.

Hala eta guztiz ere, zergapekoak Ekonomia Itunaren 43.5 artikuluan xedatutakoa (hau da, PFEZ aitortpena ordainarazpen-eskumena duen Administrazio berriari aurkezteak egoitza aldaketako komunikazio gisa jarduten duela) erabili ahal izan zuen BFARI jakinarazteko, bere irizpidearen arabera, foru-lurraldean zergaldiaren egun gehiago egon zela.

Hala ere, zergapekoak justu kontrakoa egin zuen, autolikidazioa ZAEARI aurkeztuz eta, beraz, bi administrazioei egoitza aldaketako komunikazioen ondorioak finkatuz.

Beraz, kontua ez da zergapeko baten egoitza fiskalari buruzko eztabaida bat ebaztea, baizik eta Administrazio batek eztabaida hori saihestu eta beste Administrazioaren eskumena dela deklaratu ahal duen erabakitzea, benetako egoitza beste lurraldean dagoela iritzita itzulketa bat ukatzen duen egiaztapen-prozedura bat amaituz.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi da ZAEAK likidazio-proposamena eta behin-behineko likidazio bera jakinarazi zituela BOEN agerraldi bidez,



zergapekoa ez zelako “*absente*”, baizik eta “*ezezaguna*”, bi aldiz, Bizkaiko ustezko egoitzan.

Arbitraje Batzordeak hainbat ebazpenetan adierazi du, adibidez 8/2021 Ebazpenean, administrazio batek ezin duela likidazio-jarduketarik egin bere buruari esleituz ordainarazpen-eskumena zergapekoak aitortutako egoitzaren aurka, hura okerra dela irizten duelako; aitzitik, lehenik eta behin, eskumena eskuratu behar du egoitza aldatzeko prozedura izapidetzearen bidez, eta, orduan bakarrik, geroago, egokitzen jotzen duen likidazio-jarduketa egin behar du.

Beraz, ZAEAk zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa sustatu behar zuen, baldin eta uste bazuen zergaldiko egun gehiago egon zela foru-lurraldean, eta ordura arte zergapekoak eskatutako itzulketa bere gain hartu behar zuen, EIABEren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1º.- Adieraztea ZAEAk eskumena duela IMM andrearen 2014ko PFEZa ordainarazteko.

2º.- Erabaki hau jakinaraztea ZAEari, BFari eta IMM andreari.

